

## *Maria Zubillaga Agirrezabala*

*Tolosa,  
Gipuzkoa  
(1924-2013)*

Aurkibidea

**Biografia**



Amezketako lurretan jaio arren, Maria eta [Joakina](#) ahizpak Bedaiokoak sentitzen dira. Izan ere, Amezketeta eta Bedaio erreka batek bereizten ditu, eta Ezkolborro baserria Amezketako aldean badago ere, lotura Bedaiorekin izan dute beti, eskola, eliza eta gainontzekoari dagokionez. Maria baserrian jaio eta hazitakoa da, eta 21 urterekin ezkondu zen Bedaiora bertara.

# Zintak

## TOL-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-11-19
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

## TOL-064

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-11
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## TOL-065

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-11
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

# Pasarteak

## 1. Heriotzaren ondoren, lutoa

- **Erref:** TOL-001/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

<p>Hildakoak etxean edukitzen ziren entierora bitartean eta gero gizonek bizkarrean Amezketara eramaten zituzten. Ondoren beltzez jantzita ibiltzen ziren urtebetez. Arropa berriak egiten zituzten. Urtea bete arte familiakoak meza nagusira joan behar ziren. Orain, berriz, ezer ez dela egiten dio. Lutoa lehengusuek ere eraman behar izaten zuten. Dantzarik ere ezin zen egin.</p>

## 2. Bedaioko sorginen kontuak

- **Erref:** TOL-001/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena:**

Bedaioiko sorginak eskopetak daudenetik ezkutatu dira. "Sacamantecas" ere bazen, umeei odola atera eta saldu egiten zuena. Denek sinesten zuten horretan. Neskame edo morroiak zelatatu egiten zituzten, gauez etxetik ateratzen ziren susmoarekin. Sorginak etxeko tximiniatik, behetik gora, ateratzen ziren esaldi berezi bat esanez. Istorio horiek denek kontatzen zituzten.

**3. Katalintxoren istorioa**

- **Erref:** TOL-001/005
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Neska gazteak ehunezko arropak josten aritzen omen ziren gauez. Behin, gaueko 12etan lanak bukatu eta etxetik ateratakoan ilargi ederra zegoela ikusi zuten. Katalintxo etxeari bueltak ematen hasi zen. Hirugarren buelta ematen ari zela, sugar bat izan zen eta betiko desagertu omen zen.</p>

**Transkripzioa**

- Ta bestia, Katalina txikiyana, nola zan?
- Zugastibarrenen, Zugastibarren badakizu zuk nun daon, Belarmugatik beheraon. Han, neska gaztek gauean eitten emen zuen, lanak eitten zittuenen... Urdun ehunezko arropan aitzia izango dezu /izangozu/, ta ehunezko maindirek-eta nola itten zittuen. Ta haik itten-ta aitzen emen zien, gau baten baten itxea, besten beste itxea... Ez dakit zenbat lagun ibiliko zien, neska gaztek. Ta gau baten jun ta saioa in emen zuen, ta gauen hamabik eta "Beno, erretiratu behar deu". Atera emen zien ta illargi earra. "Ios, hau illargie!", ta "Bai, earra!". Dena argi-argi-argi. Ta "Itxe honitxi buelta emango nitxoken oaintxe", "Ez dionala ematen!". Hiru buelta. Ta "Baietz eman!", "Ezetz eman". Bi buelta eman emen zixkon ta, hirugarrenen zetorrela, "Gau gauekontzat ta egune egunezkontzat, Katalintxo guretzat", ta izan emen zan sugarra bezelako zea bat izan emen zan, ta akabo. Hue ez emen zan gehio azaldu.
- Ta hoi zeinek kontatzen zizun?
- Hoik askok dakizkie.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ta Katalintxo hoi zein zan o? Jakin al da zein zan?
- A! Ez dakit, urtek izango die /izangoie/ hoi zala ta. Hoi ez dakit.

**4. Mateo Txisturen ipuina: apaiza ehizara joan eta desagertu**

- **Erref:** TOL-001/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Apaiza ehiztaria omen zen. Behin, meza eamteari utzita txakurrekin ehizara joan zen; desagertu eta inoiz ez omen zen itzuli. Goikoaren zigorra zela esaten zuten, meza emateari uzteagatik. Orduz gero, <em>Mateo txistu</em> ezizena jarri zioten apaizari; eta, gauean soinurik entzuten bazuten, hura zela esaten zen.</p>

**Transkripzioa**

- Ta gero apaizana´re bai, esan nizun. Apaiza´re.

- Nola zan hoi?

- Ehiztarie emen zan. Apaizak, gaiñera, asko esaten due ehiztariek diela. Ehiztarie. Meza ematen ai emen zan, ta ehiz-zakurrek zimitaiyoa erbie ekarri. Uau-uau ta uau-uau, ta bere hortan utzi meza emateko gauzek ta atea ta martxa. Apaizek alde ein emen zun zakurrekin erbie o zean segika o... Ez zuen harrapatuko, baiño behintzat. Alde ein emen zun, akabo gehio apaiz hue ez emen zan azaldu [esaten zuen].

- Ta hoi dana sorgiñak omen zian? Hoi´re sorgiñei zeatzen zitzaien?

- Sorgiñe ez, hoi beste aldea. Nunbait apaizak meza ematen ai dala ez du... ez zaio tokatuko zeaik, ateatzea, meza ematen ai dan kason. Baiño han goiko harrek eo zerbaittek zeatu zun hure. Hoi esaten zittuen behintzat. Nola alde in zun, ta akabo. Mateo Txistu.

- Hoi zein zan?

- Mateo Txistu esaten zuen, ba. Mateo Txistun zeak, ohiuk-eta, gauen ezer aitzen baldin bazien, "Hara! Mateo Txistu hor dabil".

- Txistuk-o aitzen zian?

- Bai, hori aitzen zan.

- Eta zein zan Mateo Txistu hoi? Gaiztua zan o?

- Apaiza horrengatik emen zan hoi. Horri jarri ziuela hoi esaten zuen. Mateo Txistu hoi. Apaiza meza ematen ai zala nola alde in zun, ordun´e apaizak eo obispoak o zeatuko zuen hoi. Ba, akabo. Hure ez emen zan gehio azaldu.

**5. Sorginen kontuak**

- **Erref:** TOL-001/007
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:16:03. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Gurasoek sorginen inguruko esaerak esaten zizkieten. Lanetik zetorren bati katua azaldu; eta, ezin harrapatu zebilela, sorgina izango zela pentsatu zuen. Gizon bati gaez kristauen figura azaldu zitzaion, eta beldurrez alde egin zuen. Eskopetak azaldu zirenez gero, gauza horiek bukatu ziren.</p>

## 6. Okerra eginez gero, infernura

- **Erref:** TOL-001/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:23. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

### Laburpena:

<p>Elizara zintzo joan behar zuten. Komunioa hartzeko aurrena konfesatu egin behar izaten zuten. Okerra eginez gero, infernura joango zirela esaten zuten. Orain infernurik ez dela esaten dute. Infernua bizi osoan sutan egotea zela zioten.</p>

## 7. Bataiatu gabeko umeak, Linbora

- **Erref:** TOL-001/010
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

### Laburpena:

<p>Bataiatu gabeko umeak Linbora joango zirela zioten. Orain bataiatu gabeko ume gehiago daude. Jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zituzten umeak. Etxean beti izaten zuten ur bedeinkatua eta umea gaizki jaioz gero, etxekoek bedeinkatzen zuten erramu bedeinkatuarekin aitaren eginda.</p>

## 8. Konfirmazioa eta komunioa

- **Erref:** TOL-001/011
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

### Laburpena:

<p>Konfirmazioa egiteko kandela eskuan hartu eta aldarera joaten ziren apaizarengana. Zazpi edo zortzi urte zituztenean Komunio Txikia egiten zuten eta bederatzi edo hamarrekin Komunio Handia, aingeruz jantzita.</p>

## 9. Eskola gutxi eta dotrina asko

- **Erref:** TOL-001/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:24:27. **Bukatu:** 00:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

**Laburpena:**

Eskolara gutxi joaten ziren. Lanera joaten ziren. Errezoak asko ikasten zituzten. Dotrina ere ikasi zuten kartilak erabiliz. Euskaraz idatzitako liburu hura buruz ikasi behar izan zuten.

**10. Eskolan ibili ondoren etxeko lanetan lagundu**

- **Erref:** TOL-001/013
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

**Laburpena:**

Eskola goiz eta arratsaldean izaten zen. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta adin guztietakoak nahastuta. Asko faltatzen ziren eskolara, etxean lana egin behar izaten zutelako. Eskolan ederki pasatzen zuten, jotzen ez zituzten bitartean behintzat. Etxera itzultzean hainbat lan egin behar izaten zituzten baserrian laguntzeko.

**11. Jolastu, igandetan bakarrik**

- **Erref:** TOL-001/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Gutxi egiten zuten jolas, jaietan bakarrik. Garai hartako jokoak nolakoak ziren azaltzen digu. Etxe atarian ibiltzen ziren jolasean, baina ez zuten horretarako tarte handirik.

**12. Pilotan bezperetatik atera ondoren**

- **Erref:** TOL-001/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:29:44. **Bukatu:** 00:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Soka izaten zuten saltoka ibiltzeko. Igande arratsaldetan bezperetan apaizak abestiak erakusten zizkien. Bezperak amaitu ondoren pilotan jolasten ibiltzen ziren neska mutilak elkarrekin. Iluntzerako etxera itzuli behar zuten.

**13. Bedaioko festak**

- **Erref:** TOL-001/016
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

Udaran ez zuten denbora librerik etxean lana izaten zelako. Irailaren 8an Bedaioko festak izaten dira. Ingurutxoa egiten dute eta kanpotik jendea etortzen da. Harri-jasotzaileak ere izaten ziren. Soltea ere dantzatzen zuten txistuaren soinuarekin. Festa motzak ziren.

**14. Ingurutxoa Bedaion**

- **Erref:** TOL-001/017
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

Ingurutxoa zer zen azaltzen du. Neska eta mutilen artean egiten zen.

**15. Neska-mutilen arteko harremanak**

- **Erref:** TOL-001/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

Neska-mutilak ez ziren paseoan ibiltzen, bakoitza bakarrik itzultzen zen etxera. Garai batean bikoteak leihoetan hizketan ibiltzen omen ziren.

**16. Ezkontzeko arrea prestatzen zuten**

- **Erref:** TOL-001/019
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

Ezkontzerakoan, arreoaren eramaena zuten idien gainean. Soinu-jotzailea atzetik zeramatela joaten ziren. Etxerako behar zen guztiak osatzen zuten arreoaren. Mairidiretan izena eta abizena jartzen zuten. Neskaren etxekoek erosten zituzten arreoaren gauzak. Goizean elizan ezkondu ondoren, neskaren etxean gosaltzen zen eta ondoren mutilaren etxean bazkaldu. Nahiz eta gauzak ongi ez joan isilik egon behar izaten zuten, orain ez bezala.

**17. Ezkondu eta hurrengo egunean lanera**

- **Erref:** TOL-001/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

Ezkondu ondoren emakumeek gizonek bezalaxe egiten zuten lan baserrian. Oraingo emakumeekin gauzak asko aldatu dira.

**18. Emakumeen menpekotasuna**

- **Erref:** TOL-001/021
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:44:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Beste etxe batera ezkonduz gero, isilik egon behar izaten zen. Orduan asko aguantatzen zen; orain, berriz, gauzak asko aldatu dira. Dirua gizonek izaten zuten eta emakumeek mende gelditzen ziren. Orain emakumeen nagusi direla pentsatzen du. Sukaldean emakumeek agintzen zuten. Jaietan bakarrik deskantsatzen zuten.

**19. Umeak nola zaintzen zituzten**

- **Erref:** TOL-001/022
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

**Laburpena:**

Umea jaio eta egun batzuk etxean pasa ondoren, berehala lanera itzultzen ziren. Umea amonarekin etxean uzten zuten bularra eman ondoren. Egurrezko

sehaskak gelan jartzen zituzten. Gauzak asko aldatu dira. Biberoirik ez zegoen eta janaria koilararekin ematen zitzaien.

## 20. Harri jaia Bedaion

- **Erref:** TOL-001/024
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:47:14. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Elkarrizketa garaian, beste festa batzuk ospatzen zirenherrian, baina garai batean ez ziren. Egun batean harriak bazterrak apurtu omen zituen eta egun haren oroitzapenean festa antolatu zen. Elizara joan eta berrogei kredo esan behar izaten ziren. Egun hori jaia izan behar zela erabaki zuten. Prozesioa eta gero zahagi-ardoa banatzen zen. Soinua eta dantza ere izaten ziren.

## 21. Larraitzera oinez

- **Erref:** TOL-001/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:53:10. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

<p>Lehen beti oinez ibiltzen ziren. Larraitzera joaten ziren dantza egitera. Bertako Ama Birjinari hamar zentimo botatzen zizkieten. Bertan merienda jaten zuten. Kuadrillan joaten ziren. Hamalau-hamabost urterekin hasten ziren. Erroskila saltzaileak egoten ziren. </p>

## 22. Baserrian lan handia izaten da

- **Erref:** TOL-001/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Iluntzerako etxera itzuli behar izaten zuten gurasoak horretara ohituta zeudelako. Orain, berriz, egunez lo eta gauzez kanpora. Baserrian hori ezin da egin, lana dago-eta. Ardiak udaran mendian daudenez, lan gutxi ematen dute; neguan, berriz, etxean izaten dituzte.

## 23. Gazta nola egiten zuten

- **Erref:** TOL-001/029
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

### Laburpena:

Gazta egiteko pausoak azaltzen ditu.

## 24. Gazta ketua

- **Erref:** TOL-001/031
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:06:17. **Bukatu:** 01:07:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

### Laburpena:

Gazta ketua egiteko gela itxi bat erabiltzen zuten eta bertan pago egurrarekin sua egiten zen. Elkarrizketa garaian ez zuten hori egiten. Kearen ordeztatik txikoria ere erabili ohi zuten. Keak kolorea besterik ez zion ematen gaztari.

## 25. Tolosako zerkausira saltzera

- **Erref:** TOL-001/032
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:07:59. **Bukatu:** 01:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

Lehen Tolosako zerkausian saltzen zuten gazta. Pisu txiki bat eraman eta kiloka saltzen zuten. Arrautzak ere eramaten zituzten. Elkarrizketa garaian etxeetara etortzen dira gazta bila.

## 26. Baserrian neke handia dago

- **Erref:** TOL-001/033
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:09:42. **Bukatu:** 01:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Gazta egiteko indarra behar da. Prozesua luzea eta neketsua da. Baserrian neke handia dago. Etxekoei gustatu egiten zaiela dio. Ardi asko dituzte grabaketa egiterakoan ere, nahiz eta lanera kalera joan.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com